


ALTSASUKOEN KONTRA NEURRIGABEKI JO ZUEN FISKALAK

Martxelo Diaz Aristizabal

Neurrigabeko eskaera egin zuen Jose Peral s Auzitegi Nazional espainoleko fiskalak Altsasuko gazte talde bat zigortzeko. Goizaldeko ordu txikietan bi guardia zibilekin izandako liskarra zurrumbilo mediatikoaren erdian kokatu zuten, errealitatea desitxuratuz.

Fiskaltzak 375 urte eskatu zituen orotara Altsasun bi guardia zibilekin, herriko ferietan, ordu txikietan, taberna baten kanpoaldean izandako liskarra-rengatik. Jose Peral s fiskalak 62 urte eskatu zituen espetxean jarraitzen duen gazte batentzat, 50na urte beste sei gazterentzat eta hamabi urte eta erdi zortzigarrenarentzat. «Lesio terroristak» ikusi zituen Peral s fiskalak es-

Azpian, azaroan espetxean urte bat bete duten hiru gazteen askatasuna eskatzeko ekitaldia Altsasun. Goian, hainbat artista ezagunen laguntzarekin egindako kantua-ren eta bideokliparen aurkezpena, eta mobilizazio ugarietako bat. Jagoba MANTEROLA - Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS



kaera hauek egiteko (12 urte gazte ba-koitzeko, gisa honetako launa delitu), nahiz eta gertakaria jazo zenean Nafarroako Ospitalean egindako txostenean jasandako kalteak arinak zirela adierazten zen. Halere, hiru gazte (Adur Ramirez de Alda, Oihan Arnanz eta Jo-kin Unamuno) espetxean dira. Eta bes-teak epaiketaren zain.

Fiskaltzaren eskaera jakin bezain las-ter, amorrua zabaldu zen Altsasun, Sa-kanan eta Nafarroa osoan. Kasuaren ha-sieratik gazte hauena «berezia» zela agerian gelditu zen. Ordu txikietan, ta-bernetako kanpoaldean borroka ugari izaten dira, toki askotan. Eta normalean, falta administratibo batekin eta isun bat ordainduz amaitzen dira. Altsasukoa gertatu zen aste berean, Foruzaingoak zabaldu zuenez, antzeko liskarra izan zen Irurtzunen, Sakanan bertan, Altsa-sutik 30 kilometrora. Baina liskar honek ez zuen komunikabideen arreta piztu eta horrelako gertakarien anonimotasu-nean geratu zen. Estatu espainolean ba-rrena ere antzeko gertakariak izan ziren, tartean guardia zibilak edo poliziak sar-tuta zeudelarik, baina inon ez zen Altsa-suko gazteei eskatu zieten zigorrak eska-tu. Inolaz ere.

Argi dago, beraz, Altsasuko kasua be-rezia dela. Zergatik? Fiskaltzaren idaz-



kian argi eta garbi onartzen da. Guardia Zibila Euskal Herritik alde egiteko aldarrikapena indartsu dago Altsasun eta Sakanan. Izan ere, bailara honetan indar polizialen presentzia itzela jasaten dute. Kontrol ugari pairatu behar izaten dituzte bertako biztanleek, bai autobidearen erdian bai Altsasuko erdialdeko karriketan. “Alde Hemendik” kanpaina edo Ospa Eguna ekimena zurrumbiloaren erdian jarri zituzten helburu argi batekin: Altsasuko gazteria kriminalizatzea.

Liskarra izan zen egunean, abokatuek argi zuten mozkorraldi bateko gertakaria zela. Feriak ziren eta goizeko ordu txikietan gertatu zen. Zoritzarrez, festetan ohikoa izaten da. Foruzaingoak egin zituen atxiloketak eta lehen atestatua. Bertan, guardia zibil baten lehen testigantza jasotzen da. Garrantzi handirik gabeko istilua izan zela adierazten du bertan. Eta antzeko azalpenak eman zituzten guardia zibilen lagunak ziren neskek ere. Baina bat-batean dena aldatu zen. Guardia Zibilaren agintariek muturra sartu zuten eta bigarren agenteari Foruzaingoaren aurrean ez deklaratzeari agindu zioten. Guardia Zibilak beste txosten bat egiteari ekin zion, Foruzaingoa albortzeko helburuarekin. Eta hor hasi zen

«terrorismoan» oinarrituriko bertsioaren zurrumbiltoa.

Bertsio hori indartzeko komunikabide ugariak esfortzu berezia egin zuten. Altsasuko gazteak eta herri osoa kriminalizatzeko erreportaje ugari argitaratu zituzten, inolako funtsik gabeak. Adibide bat: Madrilgo agerkari batek egungo Altsasu eta garai beltzetako Belfast alderatzen zituen. Haluzinazio honen arabera, Gartzia Ximenez kaleak Altsasu bitan banatzen zuen. Alde batean abertzaleak bizi ziren, bestean espainolak. Altsasun behin bada ere izan den kazetari bat ez zen gai izango horrelako astakeriarik idazteko. Baina horrelakoak (eta okerragoak) idatzi izan dira, Guardia Zibilaren bertsioa zalantzan jartzen zuen edonor kriminalizatzen zutelarik bide batez.

Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren arteko lehia hori epaitegien artera ere iritsi zen. Mozkorraldiko liskarra bazen Iruñeko epaitegietan aztertu beharreko auzia izango litzateke; «terrorismoan» oinarrituriko gertakaria bazen Madrilgo Auzitegi Nazionalak aztertu beharko luke. Esan beharrik ez dago afera Iruñean edo Madrilan epaitzea ez dela gauza bera. Bai zigor eskaerei dagokionez bai epaitegietan izaten den tratamenduari dagokionez. Abokatu gehienek argi zuten: Iruñean epaitu

beharra zegoen, ez zen kasu «berezi» bat. Horixe adierazi zuten komunikatu batean. Antzeko jarrera azaldu zuten Nafarroako erakunde nagusiek (Nafarroako Gobernuak, Parlamentuak, Iruñeko Udalak, Altsasuko Udalak...) eta alderdi, sindikatu eta eragile ugariak. Mobilizazio erraldoiak egin izan dira Iruñean eta Altsasun ere, elkartasun uholdea sortuz.

Horrelako kasuetan esanguratsua izaten da eskarmentua duten abokatuen iritzia. Esaten dutenez, legearen arabera gauzak argi zeuden eta kasua Iruñean ohiko epaitegian aztertu beharra zegoen. Baina teknikoki normala izango litzatekeena ez da horrela izaten epaiketa politikoak izaten direnean. Eta horrela gertatu zen Altsasuko gazteen kasuan. Ondorioa Auzitegi Nazionalean epaituak izango direla izan da. Eta bide batez hiru gaztek dagoeneko urtebete baino gehiago espetxean pasa dutela.

Amaia Izko Auzitegi Nazionalean eskarmentu handia duten abokatu horietako bat da. Injustizia asko ikusi izan ditu tribunal berezi horretan. Baina Altsasuko gazteekin gertatu denarekin asaldatuta dabil. Azkenekoa abenduan bertan izan da, Auzitegi Nazionalak oraindik espetxean dauden hiru gazte behin-behineko askatasuna ukatzea.